

Joxepa Zubeldia Elizegi kioskoa

Joxepa, 1867. urteko martxoaren 19an, jaio zen Hernaniko Ibarluze baserrian. Baserria dagoeneko ez dagoen arren, haren izena daraman poligonoan zegoen. Umetan, baserriko produktuak saltzeko, Donostiara joaten zen egunero, auzoko beste baserriar batzuekin batera astoan edo zaldian.

Ibarluze baserriaren jabea baina, Madrilgo mediku entzutetsu bat zen eta ohitura zuen baserriko alabak Madrilera, nagusien etxera, neskame eramatekoa. Aurrena, bere ahizpa Maria eraman zuen eta gero, Joxepa bera, oraindik neskatoa zela. Neskametzatik ateratzeko modua ezkontzea zen eta han ezagutu zuen bere senarra izango zena, Manuel Ortiz Martinez, izatez Burgosko Mena Haranekoa. Madrilen ezkondu eta bost seme-alaba izan zituzten bertan. 1904 inguruan Hernanira itzuli ziren eta hemen jaio ziren azken bi alabak. Hasieran, Portu auzoko Iztil-Artenean bizi izan ziren, baina, ondoren, Kale Nagusia hartu zuten bizitoki.

Kale Nagusian ireki zuen lanbide hartu zuen janari-denda. Senarra mehatzeetan lan egina zen eta erabat gaixo zegoen, asmak jota ezin zuen arnasarik ere hartu. Joxepak seme-alabak hazi eta berak bakarrik jarri eta atera zuen aurrera denda.

Madrilera oso gazte joan bazen ere, euskarari gogor eutsi zion Joxepak eta, gizonak euskaraz ikasi ez zuen arren, etxean seme-alabek dena egiten zuten euskaraz, baita Madrilen jaiotakoek ere.

Joxepak oso gustukoa zuen idaztea eta, beti, aritzen zen luma eta tinteroarekin poesiak, errezoak eta bertsoak idazten. Elizan kantatzen diren kantu batzuen hitzak Joxeparenak zirela uste da.

Etxean alabek ez ziotenez idazten uzten, bere lagun Luisa bizi zen Barkaiztegi baserrira joaten zen. Urtean bizpahiru aldiz egiten zion bisita, gehienetan udan eta pare bat aste igarotzen zituen bertan. Zahartu aurretik oinez joaten zen, gero, astoan edo gurdian. Han gordetzen zituen bere bertsoak, ganbarako kutxa batean. Joxeparen bilobak kutxa hori bilatzen saiatu ziren, baina ez zuten aurkitu, ustez Joxepa hil ondoren bere alabek erre zutelako. Alabak asko lotsatzen ziren bere ama bertsolaria zelako eta jendaurrean kantatzen zuelako.

Bertso asko idatzi zituen arren sorta bakarra gorde da, 1918an Hernaniko erietxera baztanga zuten gaixoak ekarri behar zituztela-eta izandako matxinadari buruzkoa. Garaipena ospatzeko Hernaniko Ezkiaga pasealekuan egindako herri bazkarian, mahai gainera igota, kantatu zituen sortako 24 bertsoak. Eguberrian eta Sanjoanetan ere Kale Nagusiko bere balkoitik ere aritzen zen bertsoan, kaletik zihoazen beste bertsolariei erantzunez.